

Intxaurrondo

Aitor Navarro (Tel.: 943 28 89 19)

Hemen dira berriro ere Larrotxeneko bideo ikastaroak. Azken urteetan tradizio bihurtutako ikastarook arrakasta handia dute auzotarren eta donostiarren artean. Izena eman nahi duzuenok azkar ibili beharko duzue: epea datorren astelehenean, hilak 18, zabalduko da.

Larrotxene kultur etxea duela hamahiru urte hasi zen bideoarekin eta ikusentzunezkoekin lotutako ikastaroak egiten. Sortzaileek espero baino jende gehiagok eman zuen izena orduan eta orduz geroztik, ikastaroen oihartzuna zabaldu da eta urtetik urtera gero eta herritar gehiagok jotzen du auzoko kultur etxera. Iaz ehundik gora lagun aritu ziren. Aurtengo ikastaroetan izena emateko epea datorren astelehenean, hilak

laz ehundik
gora lagun
izan ziren
ikusentzunezko
ikastaroetan



Adin guztietako herritarrek parte hartu ohi dute Larrotxenek antolatzen dituen ikastaroetan.

18, irekiko da.

Ikastaroon helburua ikusentzunezkoen ahalik eta esparru gehien jorratzea da: gidoigintza, hizkuntza, aktoreen zuzendaritza, arlo teknikoa... Hori dela eta, ikastaro asko antolatu ohi da eta edonork, hasiberriek zein ikusentzunezkoetan murgiltzen hasi direnek, du ikasteko aukera. Haurrek ere badute tokia ikusentzunezko ikastaroetan. Isabel irakasleak azaldu digunez, "haurrekin formakuntza lantzen da bereziki: irudiak aztertzen dira, gidoiak egiten dituzte... Dena den, bideo kamara ere hartzen dute, filme laburrak egiteko".

Aholkuak eta laguntza

Donostiako kultur etxeen

Larrotxenek ekoiztutako filme batzuek sariak lortu dituzte

artetik Larrotxenek jorratzen ditu gehien ikusentzunezkoak. Hala ere, iharduera ez da ikastaroak antolatzera mugatzen. "Ikusentzunezkoen mo-duloa da hauxe eta beraz, jendearen formakuntzaz gain, ekoiztu egiten dugu", dio Antxon irakasleak.

Ildo honetatik, ikastarootan aritzen direnek, ikasturtea amaituta, bideoak egiteko laguntza jasotzen dute bertan: materialea eta aholkua.

"Jendeak gidoiak aurkezten dizkigu eta gidoiak itxura ona badu, ez bada astakeri bat, ez da inongo arazorik izaten hemengo materialeak erabiltzeko: bideo kamara, tripodea, aterkitxoak, mikrofonoa... Normalean ez ditugu atzera botatzen aurkezten dizkiguten proiektuak", azaldu digu Isabel.

Larrotxenek egindako ekoizpenei dagokienez, batzuk saritu izan dituzte zenbait lehiaketetan, Urkolaren "Garbikunde", esaterako.

Beraz, bideoigintza atsegin duzuen guztiok badakizue nora jo. Larrotxenen aholkua eta laguntza eskainiko dizkizute. Auskalo, beharbada zuen artean zinegile handiren bat sortuko da.